

Donostia, 2023ko irailaren 28a

124/23 PRENTSA OHARRA

ALDAKETAK DONOSTIAKO ZURICH MARATOI ERDIA DELA ETA URRIAREN 1EAN, IGANDEAN

Urriaren 1ean, igandean, Donostiako Nazioarteko Zurich Maratoi Erdia egingo da, gutxi gorabehera **9:30etik 12:30era**, eta hori dela-eta, Dbusen zerbitzu batzuen **ibilbideak eta geltokiak** aldatuko dira.

Era berean, **9:30etik 11:30era Dbuseko autobusetan bidaiak dohainik izango dira** (38-Trintxerpe-Altza-Molinao linean eta TB6 Taxibus Ulia zerbitzuan izan ezik), bidaia horien kostua probaren antolatzaileek hartuko baitute beren gain.

- **5-BENTA BERRI:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Santa Katalina Zubian** egingo du.

- Erdialderantz: 5 linea ezingo da Antiguotik ibili. **Antiguora joateko, erabiltzaileek Errotaburu-Antiguo lotura zerbitzua hartu beharko dute Errotaburuan**. Lotura zerbitzu hori Zarautz Hiribidetik ibiliko da, eta bertan geldialdiak egingo ditu. 5 lineako autobusek Saihesbidetik jarraituko dute eta Pio XII.era iritsiko dira eta handik Santa Katalina Zubira joango dira (amaierako geltokia).

Ez da geldituko Tolosa Hiribidean, Zumalakarregi Hiribidean, Ondarretan, Zubieta Plazan, Askatasunaren Hiribidea 31n, Okendon eta Boulevardean.

- Antiguo alderantz: Santa Katalina Zubitik aurrera, Frantzia pasealekutik jarraituko du, Iparreko Geltokitik (geldialdia) F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik, eta autobusen geltoki zaharraren bideraino iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean). Pio XII.aren plazatik Saihesbidea hartuko du eta Errotaburura iritsiko da. Amaierako geldialdia Errotaburuan egingo da.

Antiguora joateko, erabiltzaileek Errotaburu-Antiguo lotura zerbitzua hartu beharko dute Errotaburuan.

Ez da geldituko Boulevardean, Urbieta 20an, Zubieta-San Martinen, Matian, Benta Berri Plazan, R.M. Azkuen, R.M. Azkue 32an, Zarautz Hiribidea 90ean eta 122an.

- **25-BENTA BERRI-AÑORGA:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Santa Katalina Zubian** egingo du.

- Erdialderantz: Añorgatik Errotaburuko geltokira iritsiko da (5 linearen geltokia). **Antiguora joan nahi duten erabiltzaileek Errotaburu-Antiguo anezka zerbitzua hartzeko autobus aldaketa egingo dute.** Hortik aurrera, Saihesbidetik jarraituko du eta Pio XII.era iritsiko da, eta handik Bizkaia pasealekura eta Foruen pasealekura (17 linearen geltokiak), eta azkenean Santa Katalina Zubian egingo du ibilbide bukaerako geldialdia.

Ez da geldituko Tolosa Hiribidean, Zumalakarregi Hiribidean, Ondarretan, Zubieta Plazan, Askatasunaren Hiribidea 31n, Okendon eta Boulevardean.

- Antiguo alderantz: Santa Katalina Zubitik aurrera, Frantzia pasealekutik jarraituko du, Iparreko Geltokitik (geldialdia) F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik, eta autobusen geltoki zaharraren bideraino iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean). Pio XII.aren plazatik Saihesbidea hartuko du, eta Errotaburura iritsiko da. **Antiguora joan nahi duten erabiltzaileek Errotaburu-Antiguo anezka zerbitzua hartu beharko dute.** Errotaburutik Añorgarantz jarraituko du bidea egiten.

Ez da geldituko Boulevardean, Urbieta 20an, Zubieta-San Martinen, Zumalakarregi Hiribidean eta Tolosa Hiribidean.

- **16-IGELDO:**

- **Igeldoko** zerbitzuak: Jose Maria Satrustegi kaleko geltokitik (Ezeiza) anezka zerbitzua egongo da, Igeldo auzoa eta Antiguo lotzeko.

Pio Barojara edo Pio Barojatik beste edonora joan nahi duten erabiltzaileek 18-Seminarioa linearen zerbitzuak hartu beharko dituzte.

Ez da zerbitzurik egongo Okendo kalearen eta Ondarreta aldearen artean. Sanserreka aldeak ere ez du zerbitzurik izango.

- **18-SEMINARIOA:**

Ibilbide bukaerako geldialdia ALDAPETA-MARIANISTAK geltokian egingo du.

- Erdialderantz: Mikeleteetatik Pio Barojatik gora egingo du (geldialdiak), gero Melodira eta Lazkano pasealekura, eta Aldapetatik Marianistetara jaitsiko da, eta Lizarra eta Aldapeta kaleen arteko bidegurutzean buelta emango du.

Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 31n, Okendon eta Gipuzkoa Plazan.

- Seminario alderantz: Lizarra kaleko geltokitik Aldapetatik gora egingo du, Lazkano pasealekura, Melodiko biribilgunera, Pio Barojatik jaitsiko da (16 linearen geldialdiak eginda), eta biribilgunean Mikeleteetara jiratuko du, handik aurrera ohiko ibilbidea egiteko, Avancorantz.

Ez da geldituko Gipuzkoako Plazan, Urbieta kalea 6an eta Zubieta-San Martinen.

- **21-MUTUALITATEAK-ANOETA:**

Mutualitateen aldetik zirkulatu ezin denez, linea honek ez du zerbitzurik emango 9:30etik 12:30era bitartean. Gune horretara joan nahi duten erabiltzaileek Amara doazen ohiko lineetako (26 eta 28 lineak) zerbitzuak hartu ahal izango dituzte.

- **26-AMARA-MARTUTENE:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Santa Katalina Zubian** egingo du.

- Erdialderantz: M^a Cristina zubiko geltokitik ez da Etxaide kalera sartuko eta Foruen pasealekutik jarraituko du Santa Katalina Zubiraino (ibilbide bukaerako geldialdia).

Ez da geldituko Okendon eta Boulevardean.

Lasterketa hasten denean (9:30etik 10:15era gutxi gorabehera), lasterkariak Pio XII.etik Zuaznabar kalean sartuko dira (Amara Plaza Hotelaren alboan), Bizkaia pasealekurantz, eta, beraz, Antso Jakituna 35eko geltokian ez da geldituko.

- Martutene alderantz: Santa Katalina Zubitik aurrera Frantzia pasealekutik jarraituko dute, Iparreko Geltokia (geldialdia), F.G. Lorcan eta Lehendakari Agirre Zubian geldialdiak eginda, eta autobusen geltoki zaharraren bideraino iritsiko dira (geldialdia behin-behineko zutoinean). Pio XII.aren plazatik Madril Hiribidera iritsiko da, eta Martutenerantz jarraituko du bere ibilbidea egiten.

Ez da geldituko Boulevardean, Urbieta 6an, Mendeurrenean eta Antso Jakituna 28an.

- **28-AMARA-OSPITALEAK:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Santa Katalina Zubian** egingo du.

- Erdialderantz: Foruen pasealekutik ez da Etxaide kalean sartuko eta Santa Katalina Zubirantz jarraituko du (ibilbide amaierako geldialdia).

Ez da geldituko Okendon eta Boulevardean.

Lasterketa hasten denean (9:30etik 10:15era gutxi gorabehera), lasterkariak Pio XII.etik Zuaznabar kalean sartuko dira (Amara Plaza Hotelaren alboan), Bizkaia pasealekurantz, eta, beraz, Antso Jakituna 35eko geltokian ez da geldituko.

- Amara-Ospitaleak alderantz: Santa Katalina Zubitik aurrera Frantzia pasealekutik jarraituko dute, Iparreko Geltokian, F.G. Lorcan eta Lehendakari Agirre Zubian geldialdiak eginda, eta autobusen geltoki zaharraren bideraino iritsiko dira (geldialdia behin-behineko zutoinean). Pio XII.aren plazatik Madril Hiribidera iritsiko da, eta ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Ez da geldituko Boulevardean, Urbieta 12an eta 58an, eta Antso Jakituna 12an eta 28an.



- **19-AIETE-BERA BERA:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Lizarran** egingo du.

- Erdialderantz: Aiete 1etik Marianistetara jaitsiko da, eta Lizarra eta Aldapeta kaleen arteko bidegurutzean buelta emango du.

Ez da geldituko Easo 19an, Okendon eta Gipuzkoa Plaza-Peñafloridan.

- Aiete alderantz: ibilbide bukaerako geldialdia Lizarra kalean egingo du. Maniobra egin ondoren, ohiko ibilbidea egiten jarraituko du Aiete-Bera Berarantz.

Ez da geldituko Gipuzkoa Plaza-Peñafloridan, Urbieta 6an eta Larramendin.

- **23-ERRONDO-PUIO ETA 32-PUIO-ERRONDO:**

Buelta guztiak 32 lineak bezala egingo ditu, ibilbide honekin:

- Errondo alderantz: Lizarratik (Aldapeta-Marianistak) La Cumberraino igoko dira, eta Lazkano pasealekutik Amarako bidea hartu, eta Katalina Eleizegitik eta Puiotik gora egingo dute San Juan de Dioseraino.

Ez da geldituko Urbieta 38an, Mendeurrenean, Pío XII.ean eta Errondo pasealekuan.

- Erdialderantz: San Juan de Diosen buelta eman ondoren, Errondo gainetik, Borroto kaletik, Etxadi kaletik eta Aiete pasealekutik itzuliko dira, eta Aldapetatik Marianistetara jaitsiko dira. Han, buelta emango dute Lizarra kalea eta Aldapeta arteko bidegurutzean.

Ez da geldituko Errondo-Barkaiztegin, Colladon, Antso Jakitunean, Easo Plazan eta Urbieta 38an. Katalina Eleizegi 1ean, Katalina Eleizegi 13an eta Katalina Eleizegi 25ean gelditu beharrean, Katalina Eleizegi 2an, Katalina Eleizegi 34an eta Katalina Eleizegi 48an geldituko dira, hurrenez hurren.

- **8-GROS-INTXAURRONDO:**

Ibilaldi bukaerako geldialdia **Pinudi-Mirakruz 14an** egingo du.

- Erdialderantz: Colón Pasealekuraino baino ezingo da iritsi. Ibilbide bukaerako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du (29 linearen geltokia).

Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 6an eta Boulevard 19an.

- Intxaurrondo alderantz: Mirakruz-Pinuditik Jaialairaino jarraituko du (31 linearen geldialdiak eginda), eta Jaialaiko tuneletik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Ez da geldituko Boulevard 19an, Askatasunaren Hiribidea 19an, Iparragirren, Zurriolan, Groseko Anbulatorioan eta Nafarroa Hiribidea 34an.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

- **9-EGIA-INTXAURRRONDO:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Santa Katalina Zubian** egingo du.

- Erdialderantz: Iztuetatik Frantzia pasealekura joango da, M^a Cristina Zubira , eta Foru pasealekura, eta ibilbide bukaerako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du.

Ez da geldituko Euskadi Plazan, Askatasunaren Hiribidea 6an eta Boulevard 15ean.

- Egia-Intxaurrondo alderantz: Santa Katalina Zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Ez da geldituko Boulevard 15ean eta Askatasunaren Hiribidea 15ean.

- **13-ALTZA ETA 14-BIDEBIETA:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Pinudi-Mirakruzen** egingo du.

- Erdialderantz: Lapurdi plazatik edo Galtzada Nagusitik aurrera Colón pasealekurantz jarraituko du, eta Mirakruzen ibilbide bukaerako geldialdia egingo du.

Ez da geldituko Kursaal, Boulevard 3an eta Gipuzkoa Plazan.

- Altza eta Bidebieta alderantz: Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo dute.

Ez dira geldituko Boulevard 3an, Gipuzkoa Plazan, Askatasunaren Hiribidea 21ean eta Askatasunaren Hiribidea 7an.

- **17-GROS-AMARA-MIRAMON:**

- Gros alderantz: Santa Katalina Zubira iristean, Mirakruz kaletik sartuko da (13 linearen geldialdiak) eta Fernando Sasiaineraino iritsiko da. Han, noranzko aldaketa egin, Kotxetegi zaharren inguruan, eta linearen ibilbide hasierako geltokira jaitsiko da, Ategorrieta 41era.

Ez da geldituko Iparragirren, Zurriolan, Groseko anbulatorioan eta Nafarroa Hiribidea 34an.

Lasterketa hasten denean (9:30etik 10:15era gutxi gorabehera), lasterkariak Pio XII.etik Zuaznabar kalean sartuko dira (Amara Plaza hotelaren alboan), Bizkaia pasealekurantz, eta, beraz, Antso Jakituna 33ko geltokian ez da geldituko.

- Amara-Ospitaleak alderantz: Iparreko Geltokitik aurrera F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik jarraituko du, eta autobus geltoki zaharraren bideraino iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean).

Pio XII.aren plazatik Madril Hiribidera iritsiko da eta ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Ez da geldituko Bilbo Plazan, Mendeurrenean eta Antso Jakituna 28an.

- **29-HEGO INTXAURRRONDO SUR:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Pinudi-Mirakruz 14an** egingo du.

- Erdialderantz: Colón pasealekuraino baino ezingo da iritsi. Bukaerako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du.



Geltoki hauek kenduko dira: Kursaal eta Boulevard 15.

- Intxaurren alderantz: Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du. Ez da geldituko Boulevard 15ean eta Askatasunaren Hiribidea 15ean.

• **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO:**

- Antiguo alderantz: Iparreko Geltokitik aurrera F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik jarraituko du, eta autobus geltoki zaharraren bideraino iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean). Pio XII plazatik Saihesbidea hartuko du eta, Amerika plazara iristean, Lugaritzetik gora egingo du, Meloditik, eta Pio Barojatik jaitsiko da. Gero, noranzko aldaketa egingo du Mikeleteen biribilgunean. Pio Baroja kalean eta Errotaburun geldialdiak egingo ditu.

Ez da geldituko Bilbo Plazan, Mendeurrenean, Pio XII.ean, Tolosa Hiribidean eta Zumalakarregi Hiribidean. Era berean, autobusa gutxi gorabehera ohi baino 15 minutu beranduago igaroko da Melodi eta Lugaritzeko geltokietatik.

- Loiola-Intxaurren-Altza alderantz: Pio Baroja 4tik aurrera Pio Barojatik igoko da berriro, Melodi, Lugaritz, Errotaburu eta Amerika plazatik Saihesbidean sartuko da, Amara alderantz. Madril Hiribidea 10eko geltokitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du. Ez da geldituko Tolosa Hiribidean, Zumalakarregi Hiribidean eta Colladon.

• **27-ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUO-GROS:**

- Antiguo alderantz: Madril Hiribidetik Bizkaia pasealekurantz egingo du, eta autobus geltoki zaharrerantz sartuko da berriro, Pio XII.ean (geldialdia). Saihesbidean sartuko da eta Antiguorantz egingo du; Amerika plazara iristean Lugaritzetik gora egingo du, Melodi, Pio Baroja, Matia kalea, R.M. Azkue kalera eta Zarautz Hiribidera (5 linearen geltokiak) Ez da geldituko Tolosa Hiribidean eta Zumalakarregi Hiribidean. Pio XII.ean gelditu beharrean, autobus geltoki zaharrean geldituko da.

- Gros-Larratxo alderantz: Zarautz Hiribidea 122tik Amerika Plazarantz joango da, eta Saihesbidean sartuko da, Pio XII.erantz. Gero, Antso Jakituna 33tik aurrera, ohiko ibilbidea egingo du.

Ez da geldituko Zumalakarregi Hiribidean, Tolosa Hiribidean eta Colladon. Era berean, autobusa gutxi gorabehera ohi baino 15 minutu lehenago igaroko da Lugaritzeko geltokietatik.

• **31-INTXAURRONDO-AIETE-OSPITALEAK-ALTZA:**

Anoeta-Easo-Erdialdeko zonatik zirkulatzerik ez dagoenez, **linea honek ez du zerbitzurik emango 9:30etik 12:40ra, gutxi gorabehera** (12:38 Santa Barbaratik eta 12:40 Zubiaurretik).

- **33-LARRATXO-INTXAUR-ANTIGUO-BERIO:**

- Antiguo alderantz: Colón pasealekutik joango da, Frantzia pasealekutik, Iparreko Geltokitik (geldialdia), F.G. Lorcatik, Lehendakari Agirre Zubitik, Pio XII.eko autobus geltoki zaharretik (geldialdia) eta Saihesbidetik, eta Igaran duen ibilbide bukaerako geltokirantz jarraituko du.

Beriotik bueltan baino ez da igaroko.

Antiguotik Errotaburura eta Errotaburutik Antiguora joateko, Errotaburu-Antiguo bitarteko **ANEZKA ZERBITZUA** hartu beharko da (doakoa). Zerbitzu hori Matia kaletik, Resurreccion Maria Azkue kaletik, Zarautz Hiribidetik eta Errotaburutik joango da.

Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 18an, Urbieta 20an eta Zubieta-San Martinen, eta hor gelditu beharrean Iparreko Geltokian geldituko da. Ez da geldituko Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean, eta leku horietan gelditu beharrean Matia kalean, R.M. Azkuen eta Zarautz Hiribidean geldituko da. Joaneko ibilbidean ez da Berion geldituko. Berioko geltokiak joaneko ibilbidean kendu egingo dira: Unibertsitatea, Berio 22, Aspace, Berio 78 eta Berio 118.

- Larratxo alderantz: Igaratik aurrera ohiko ibilbidea egingo du, Beriotik Gelategiraino; Unibertsitateak, Amerika plaza eta Errotaburun sartuko da (geldialdia). Saihesbiderantz jarraituko du, Pio XII.era eta Foruen pasealekura irtengo da, Santa Katalina Zubira (behin-behineko geralekua) iritsi, eta Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Ez da geldituko Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean, eta hor gelditu beharrean Elhuyar Plazan (gelategia) geldituko da. Zubieta Plazan, Askatasunaren Hiribidea 21ean eta Askatasunaren Hiribidea 3an gelditu beharrean Santa Katalina Zubian geldituko da.

- **35-ARRIOLA-AIETE-OSPITALEAK:**

- Ospitaleetatik Antiguo alderantz: Pio Barojatik jaistean, Matian sartuko da, R. M. Azkuen eta Zarautz Hiribidean (5 linearen geltokiak). Loreatik eskuinera egingo du Juan Olasagastitik, Bernardo Estornés Lasa, Berio, Europa plaza eta Arriolarantz joango da. Ez da geldituko Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean.

- Ospitaleetarantz: Elhuyar plazara iristean Unibertsitateetara doan zerbitzu bidea hartuko du, eta Ibaetako biribilgunetik eskuineko erreia hartuko du eta Amerika plazatik aurrera Lugaritzetik eta Pio Barojatik igo eta Mikeleteetan buelta eman, ohiko ibilbidea egiten hasteko, Pio Baroja 4an, Ospitaleetarantz. Antiguora joan nahi duten bidaiariek Errotaburu-Antiguo anezka zerbitzua hartu beharko dute.

Ez da geldituko Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean.

- **36-SAN ROKE-ALDAKONEA:**

Linea hau bitan banatuko da.

1. ALDAKONEA-ERDIALDEA

Ibilbide bukaerako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du (behin-behineko zutoina).

Aldapabidetik aurrera, Aldakonea, Alai-Ondo, Konkorrenea, Onkologiko zaharra, Nazaret, Zuhaizti, Iztueta, Frantzia pasealekua, M^a Cristina Zubia eta Foruen pasealekua igaroko ditu, eta ibilbide bukaerako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du. Gero, Aldakonearaino ohiko ibilbidea egingo du.
Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 3an.

2. MATIA-SAN ROKE- ARROKA PLAZA

Ibilbide bukaerako geldialdia Arroka Plazan egingo du.

- San Roke aldea: Arroka plazatik Matia kalera bitan banatuko da. San Rokeetik jaistean, Easo plazako geralekuraino iritsiko da, Easo kalea, Lizarra eta Arroka plazara iritsiko da.

Arroka plazatik Matiaraino ibilbide normala egingo du.

Ez da geldituko Euskadi Plazan, Askatasunaren Hiribidea 20an, eta Urbietta 6an eta 38an.

• **37-RODIL-ZORROAGA:**

- Zorroaga alderantz: Lapurdi plazara iristean, Colón pasealekutik sartuko da, Iparreko Geltokitik, eta ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Ez da geldituko Kursaal, Gipuzkoa Plazan eta Askatasunaren Hiribidea 7an.

- Rodil alderantz: Foruen pasealekutik ez da Etxaide kalean sartuko eta Santa Katalina Zubirantz jarraituko du (geldialdia behin-behineko zutoina) Mirakruzen ohiko ibilbidea berreskuratzeko.

Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 3an.

Lasterketa hasten denean (9:30etik 10:15era gutxi gorabehera), lasterkariak Pio XII.etik Zuaznabar kalean sartuko dira (Amara Plaza Hotelaren alboan), Bizkaia pasealekurantz, eta, beraz, Antso Jakituna 35eko geltokian ere ez da geldituko.

• **41-GROS-EGIA-MARTUTENE:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Jaiailan** egingo du.

- Gros alderantz: Euskadi plazaraino iritsiko da, eta Mirakruz kaletik Jaiailairantz jarraituko du (29 linearen geltokiak).

Ez da geldituko Iparragirren, Zurriolan eta Groseko Anbulatorioan.

- Martutene alderantz: Jaiailatik Fernando Sasiainerantz jarraituko du, bere ohiko ibilbidea egiten.

Ez da geldituko Groseko Anbulatorioan eta Nafarroa Hiribidea 34an.

• **42-ALDAPA-EGIA:**

Ibilbide bukaerako geldialdia **Santa Katalina Zubian** egingo du.

- Erdialderantz: Galtzada Nagusitik aurrera Colón pasealekua, Frantzia pasealekua, M^a Cristina Zubia eta Foruen pasealekua igaroko ditu, eta Santa Katalina Zubian ibilbide bukaerako geldialdia egingo du.

Ez da geldituko Kursaaletan eta Boulevard 19an.

- Aldapa alderantz: Santa Katalina Zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Ez da geldituko Boulevard 19an eta Askatasunaren Hiribidea 15ean.

• **45-RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE:**

- Antiguo-Aiete alderantz: Geltokietatik F.G. Lorca, Lehendakari Agirre zubia eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia) igaroko ditu, eta Saihesbidea hartuta Errotaburuko geltokiraino (5 linearen geltokia) joango da. Errotaburutik ohiko ibilbidea egingo du berriro Bera Bera-Pagolarantz.

Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 18an, Urbietta 20an eta Zubieta-San Martinen, eta hor gelditu beharrean Iparreko Geltokian geldituko da. Ez da geldituko Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean.

Erroburutik Antiguora joan nahi duten bidaiariek Errotaburu-Antiguo bitarteko ANEZKA ZERBITZUA hartu beharko dute (doakoa).

- Erdialderantz: ohiko ibilbidea egingo du Amerika plazaraino, eta Errotaburun sartuko da. Gero, Saihesbidetik jarraituko du Pio XII.eraino. Pio XII.etik Gernikako Arbola pasealekua eta Foruen pasealekua igaroko ditu (17 linearen geldialdiak eginda), eta Santa Katalina Zubitik (geldialdia behin-behineko postean) eta Geltokietatik ibiliko da.

Ez da geldituko Tolosa Hiribidean, Zumalakarregi Hiribidean, Ondarretan, Zubieta Plazan eta Askatasunaren Hiribidea 31n.

Erroburutik Antiguora joan nahi duten bidaiariek Errotaburu-Antiguo bitarteko ANEZKA ZERBITZUA hartu beharko dute (doakoa).

• **46-SAN ANTONIO- MORLANS:**

Errondo pasealekutik eta Morlansetik ibili ezingo duenez, **linea honek ez du zerbitzurik emango Askatasunaren Hiribidearen eta Morlansen artean gutxi gorabehera 12:35era bitartean.** Alde horietara joan nahi dutenek Amarara doazen ohiko lineetako (26 eta 28 lineak) zerbitzuak hartu ahal izango dituzte.

- Morlans alderantz: Ategorrieta Hiribidetik aurrera, Galtzada Nagusia, Colón pasealekua, Frantzia pasealekua, M^a Cristina Zubia eta Foruen pasealekua igaroko ditu, eta Santa Katalina Zubian ibilbide bukaerako geldialdia egingo du.

Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 20an, Urbietta 6an eta 38an, Mendeurrenean, Pio XII.ean eta Morlans inguruko geltoki guztietan.

- San Antonio alderantz: ibilbide bukaerako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du (behin-behineko zutoina). Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du berriro, San Antonioraino.

Ez da geldituko Morlanseko geltokietan, Antso Jakituna 35ean, Bizkaia pasealekua-Mundaiz Zubian, Gernikako Arbolan, M^a Cristina Zubian eta Askatasunaren Hiribidea 3an.

• **47-ATOTXA ERREKA:**

Ezingo da zirkulatu Ondarretako eta Funikularreko aldean.

- Antiguo alderantz: Errotaburu-Amerika plazatik aurrera Lugaritzetik igoko da, Pio Barojatik jaitsiko da, eta ibilbide amaierako geldialdia Pio Baroja 5ean egingo du (jaitsierako azken geltokia).

Amerika plazako geltokia, Tolosa 111ekoa, Unibertsitatekoa, Irakasle Eskolako, Zumalakarregi 21ekoa, Esklabetakoa, Ondarretakoa, Satrustegi lekua eta Ilkoa, eta Funikularrekoa kenduko dira. **Errotaburu 5era eta Matiara** lekualdatuko dira.

- Atotxa Erreka alderantz: Matia kalean hasiko da ibilbidea, R. M. Azkuetik eta Zarautz Hiribidetik jarraituko du Amerika Plazaraino, eta han ohiko ibilbideari helduko dio berriro.

Funikularreko geltokia, Iruñekoa, Antiguako Anbulatoriokoa, Irakasle Unibertsitatekoa, Tolosa 112koa eta Tolosa 138koa kenduko dira. **Matiara, Benta Berri plazara, R.M. Azkuera, R.M. Azkue 32ra, Zarautz 90era eta Zarautz 122ra** lekualdatuko dira.

• **ERROTABURU-ANTIGUO LOTZEKO ANEZKA ZERBITZUA:**

- Antiguo alderantz: Errotaburutik irtengo da, Lugaritzetik igo, Meloditik, eta Pio Barojatik jaitsiko da, Mikeleteetaraino. Lugaritz, Melodi eta Pio Barojako geltoki guztietan geldituko da.

- Errotaburu alderantz: Mikeleteetatik aurrera, Matia kalean jiratu, Benta Berri Plazara, R.M. Azkuera, Zarautz Hiribidera eta Amerika Plazara; gero, Errotaburun sartuko da. Matia kalean, R.M. Azkuen, Zarautz Hiribidean eta Errotaburun geldialdiak egingo ditu

Informazio gehiagorako, Dbuseko webgunera jo (www.dbus.eus) edo 900 840 146 telefono zenbakira deitu.